



MARAS

Elaboración de la Escola de Cultura de Pau a partir de un artículo de LE MONDE DIPLOMATIQUE Marzo 2004, pg 18-19

M-18 eta M-S.

60ko hamarkadatik aurrera, Los Angelesen (AEB) gazteez osaturiko hiri-banda armatuak antolatzen dira, “marak”– horietako asko etorkinak –, lanerako aukerarik ezak kalera bultzatuta. “Mara 18”ak bere basea kokatzen den Los Angeleseko kalearen izena hartzen du. Aurrerago, “Salvatrucha Mara” sortzen da, El Salvadorretik etorritako pertsonak jasotzen duten ezizena hartzen duena.

Marak, funtsean, droga-trafikoan, autoen lapurretan eta saltokietako lapurretetan aritzen dira. Jarduera horien aurkako borroketarako, 90eko hamarkadatik aurrera, Los Angeleseko poliziak kanporatze politika bat hartu zuen, arazo horretan laguntzen duena. Gaur egun, M18 eta MS marak Estatu Batuetan, Kanadan, Mexikon eta Erdialdeko Amerika osoan aurki daitezke.

Mara bateko kide izateak esanahi handia du bere taldekideentzat: “18 nire familia da. Tatuaje honek betiko lotzen nau berarekin”, dio M18ko Bad Boyk. Marak osatzen dituztenak beren taldea identifikatzen duten sinboloen arabera bereizten dira: MS taldekoak 13 zenbakiarekin identifikatzen dira, “sureño” hitzarekin, eta, askotan, “M”, “M-S” edo “orgullo salvadoreño” tatuajeak egiten dituzte; M18koak, berriz, 666 (batzean 18 ematen dutenak) edo XVIII tatuatzen dute.

Lehia handia dago horien artean: M18koek “Mierdas secas” esaten diete MS taldekoei, eta El Salvadorreko 2.000 hilketatik % 40a maretako kideen arteko liskarrei egozten zaizkie. Hala ere, haien antagonismoa zalantzarria da: itxuraz bereiztea zaila izateaz gain (askotan galtza zabalak eta beisboleko txapelak janzten dituzte), ez dago bi talderen arteko lehiaz haraindiko benetako liskar kausarik: El Salvadorko soziologo baten arabera, “maren indarkeria funtsean beren etsaitzat jotzen dituztenak suntsitzera bideratuta dago: baldintza ekonomiko eta sozial oso antzekoak dituzten gazteak, kontrako taldekoak izateagatik soilik bereizten direnak”.

HAUSNARKETARAKO:

- **Zertan dute antza bi taldeetako kideek?**
- **Nola deitzen diote beste taldeari?**
- **Zein identifikazio-zeinu erabiltzen dituzte besteengandik bereizteko?**